Arantzazu Aizpurua, Iñigo Hernández, Nahia Madinabeitia eta Iker Lizeaga dira Idazle Gaztea sarietako irabazleak. Liburu gustukoenen artean, aldiz, Miren Agur Meaberen «Urtebete itsasargian» eta hiru itzulpen aukeratu dituzte Gipuzkoako hainbat eskoletako ikasleek.

# Liburu Gaztea eta Idazle Gaztea sariak banatu dituzte Donostian

Rebeka CALVO | DONOSTIA




Liburu Gaztea eta Idazle Gaztea sarien irabazleak Koldo Mitxelenan bildu ziren atzo. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Galtzagorri Elkarteak urtero antolatu ohi duen Liburu Gaztea eta Idazle Gaztea sariak emateko ekitaldia izan zen atzo Donostiako Koldo Mitxelena kuturgunean. Gipuzkoako ikastetxeetako gazteei zuzendutako programak dira biak ala biak, izan ere, Galtzagorrik azaldutakoaren arabera, euren helburua «euskal literaturaren produkzio berriena gazteengana gerturatzea» da, bai eta «gazteen interesak, iritziak eta literatur gustuak ezagutzea» ere.

**Gazteek hartu zuten KM**

Horiek horrela, literatura sari hauetan parte hartu duten gazte asko Donostian izan ziren atzo, Koldo Mitxelenako areto nagusia ikasgela zalapartatsu bihurtuz. Hori bai, guztiekin borrokatzeko hantxe zen Anjel Alkain aktore eta telebista aurkezle umoretsua ekitaldiko gidari lanak egiten.

Lehenik eta behin, gazteek ikasturte honetan irakurritako liburuen artean gustukoen izan dituztenen berri eman zuen Alkainek, Liburu Gaztea sariak, alegia. DBH 1eko ikasleek "Molly Moon eta hipnotismoko liburu miragarria" (Erein) liburua aukeratu dute, Jesus Mari Lasak itzuli duen Georgia Byng-en lana, hain zuzen ere. Itzultzailea izan zen saria jasotzen eta eskerrak ematearekin batera, Galtzagorrik gazteen arteko irakurzaletasuna bultzatzeko egiten duen lana goraipatu zuen. DBH 2ko ikasleek, bestalde, Miren Agur Meaberen "Urtebete itsasargian" (Elkar) lana aukeratu dute Liburu Gaztea sarirako. Idazleak sariagatik eskerrak eman zituen eta berea baino hobeak diren lanak badirela adierazi eta bertaratutako gazteei honela esan zien: «Itsasargi honetan lagun bat duzue».

DBH 3ko ikasleei dagokienez, "Anaren bakardadea"k (Erein) irabazi du, Jordi Sierra i Fabraren lana da eta Miren Arratibelek itzuli du. Saria jasotzen Ereineko Iñaki Aldekoa izan zen, eta bide batez «ikastoletako irakurketa dotoreagoa» izan behar duela aldarrikatu zuen. Azkenik, DBH 4ko ikasleek Xabier Olarrak itzulitako Mark Haddonen "Txakurrari gauean gertatutako istripu bitxia" liburua aukeratu dute. Olarrak garrantzitsuena jendearengana iristea dela esan zuen, eta liburu irabazlea aipatzerakoan ikasleek egindako irriek horixe adierazten zutela aipatu zuen.

Idazle Gaztea sariei dagokienez, narrazioa eta poesia arloetan bina kategoria saritu dituzten. Narrazio sailean, lehen kategorian, hau da, DBHko 1. zikloan, Andoaingo La Salle Berrozpe eskolako Arantzazu Aizpuruak irabazi du "Novenus magoaren ikasleak" lanagatik. Eta poesian, lehen kategoria honetan, berriz, eskola bereko Nahia Madinabeitia saritu dute "Zu" lanagatik.

DBHko bigarren zikloko narrazio saria Iñigo Hernándezentzat izan da "Uretan murgildutako abenturak" lana idatzi duena, hau ere La Salle Berrozpekoa; eta poesian sariduna Iker Lizeaga izan da "Gu guztion ama" izeneko lanagatik.

## El Arriaga acogerá mañana la final de Euskal Herriko Kantu Txapelketa

GARA | BILBO

El Teatro Arriaga acogerá mañana, a partir de las 12, la final de Euskal Herria del concurso Euskal Kantu Txapelketa 2008.

Tomarán parte veintiocho intérpretes, entre solistas (en total, 17), dúos (6) y grupos (5), representantes de todos los herrialdes del país.

El jurado, formado por Carlos Subijana, Maite Idirin, Xan Bordazar, Itziar Duoandikoetxea, Peio Arregi, Fermin Iriarte y Jon Bergaretxe, otorgará tres premios por categoría, tras tomar en cuenta «la música, la letra, la voz, la confianza, la interpretación, la aportación de la canción y la novedad (en función de que sea tradicional o nueva)», según han explicado los organizadores, quienes han añadido que, aunque los participantes pueden acompañarese de los intrumentos que estimen oportuno, lo que se valora por encima de todo es la interpretación del canto.

Euskal Kantu Txapelketa, organizado por Euskal Kantuzaleen Elkartea, empezó a dar sus primeros pasos en 1985, en Ipar Euskal Herria, y, desde entonces, se ha venido celebrando periódicamente en todos los herrialdes con el objetivo de «expandir y mostrar la canción vasca», además de «promover la afición a cantar» y «promocionar a los nuevos cantantes».



La marcha zombi irá a Megapark junto a Marmara Jazz Band. GARA

## Barakaldo acoge hoy una marcha zombi que analiza el papel de los centros comerciales

GARA | BARAKALDO

"Quédense dentro y cierren las ventanas" es el título de la última producción de la productora bilbaina Consonni y las artistas Iratxe Jaio y Klaas van Gorkum.

El momento álgido de esta producción tendrá lugar hoy en la Casa de Cultura Clara Campoamor de Barakaldo a las 16.00, con una marcha zombi que tomará las calles del municipio. Los responsables de la marcha han aclarado que habrá «vestuario, maquillaje y litros de sangre» para todos los que se acerquen. A las 18.00 partirán hacia Megapark acompañados por Marmara Jazz Band. Jaio y van Gorkum, además, grabarán la marcha como parte del vídeo del proyecto artístico que están desarrollando.

Tanto las artistas como la productora de arte contemporáneo pretenden analizar con esta acción «el papel de los centros comerciales en las llamadas periferias de la ciudad», según han explicado.

**Parodia del ciudadano ideal**

«Los zombis, desprovistos de conciencia, personalidad y ambición, son personajes poco glamurosos en comparación con otros seres como los vampiros o el hombre lobo, pero no se puede evitar sentir simpatía por esta parodia repulsiva del ciudadano ideal», añaden.

Así, Consonni aclara que la marcha zombi se encuentra «a medio camino entre la performance, el teatro de calle, la deriva, la acción espontánea o la grabación de una película de terror».

Cabe recordar que la productora Consonni presenta esta nueva acción tras el éxito logrado el verano pasado con "Vuelven las atracciones", unas visitas guiadas por el antiguo parque de atracciones de Artxanda ideadas por la artista Saioa Olmo.